

**Audioaren erreferentzia:** JJ-86 Ihesaldi erromantikoa

**Mailak:** B2-C1

**Funtzioak:** gertatutakoaren berri eman, iritzia eman, eskaintza baten deskribapena egin

**Adierazpide linguistikoak:** lexikoa (*ihesaldi, erromantiko, hotel, lentzeria, bulego, lankide, buling, salatu, telesail...*) izeneko, *oroitu, kontua da...-ela, -tzearren, sekula ez, salatu,*

**Azken ekintza:** Ihesaldi erromantiko baterako iragarki originala egin

## EGITEKOAK

### 1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

#### 1.1 Ihesaldi erromantikoaren ezaugarriak



Gaiari hurbiltzeko eta ikasgelako mintza saioia prestatzeko jarduera: Jon eta Jone asteburu erromantikoa igarotzeaz arituko dira. Beren proposamena ezagutu aurretik, ikasleak, adibideari jarraitu eta ihesaldi erromantiko orok izan beharko lituzketen ezaugarri garrantzitsuenak idatzi behar ditu. Ikaskideekin partekatuko dituzu ideia horiek ikasgelako mintza saioan.


Adibidea: *“Ihesaldi erromantikoa izateko ezinbestekoa da nire ustez, intimitatean bikotekidearekin goxo-goxo egoteko baldintzak topatzea bertan: spa, xanpaina, kandelak, usain atseginak, janari afrodisiakoa...”* **Eta zuretzat zer da?**

### 2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

Elkarriketa zatiaren hutsuneak bete, azalpenetako egiturak erabiliz

## 1- Entzun aurretik

### 1.2 Zer gertatu ote da bulegoan?






Joneren bulegoan ezustekoa izan da eta Joni kontatuko dio zer gertatu den. Aukerak irakurri ondoren, bulegoan gertatutakoaz hipotesia egin eta horietako bat aukeratuko dute. Ikaskidearekin komentatuko du zer pentsatu duen.

#### Zuzenketa:

- Norbait gaixotu da
- Zuzendariak norbait kaleratu du
- Lankide batek bestea salatu du**
- Joneren lankidea haurdun dagoela jakin dute
- Besterik:

## 2- Entzun bitartean

### 2.1 Gertaeraren xehetasunak

   Elkarrizketaren lehen zatia entzun eta aukeratutakoarekin alderatu ondoren, elkarrizketan esandako xehetasunekin binaka informazioa osatu eta idatzi behar dute: pertsona horren izena, gertaeraren xehetasunak: non, noiz, zergatik...Eta azkenik, talde handian partekatu.




#### Zuzenketa:

##### Xehetasunak bildu:










Xabier lankidea bajaran zegoen bulegoan norbaitek bulinga egiten ziolako. Pasa den astean salaketa jarri zion lankide horri eta horrela jakin dute Zuriñe zela bulinga egiten ziotena. Zuriñek salaketak sortarazi dion antsietatea dela eta, baja hartu omen du.



### 2.2 Elkarrekin egoteko aukerak





   Elkarrizketaren bigarren zatia entzun eta ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren esan behar dute.

#### Zuzenketa:


- Joneren etxean serie bat ikusteko geratu dira baina ez dira ados jarri eta film bat ikusiko dute azkenean. 
- Jon asteburuko irtenaldi bat elkarrekin egiteko irrikan dagoenez, luxuzko hotel batean suite bat hartu du. 
- Joni opari kutxa bat dauka gordeta iaztik eta iraingitzeaz dago, baina Joneri gezurra dela iruditzen zaio. 
- Opari kutxa ez duela berak erosi duela frogatzeko, erositako data erakutsi dio Joneri 
- Joneri ez zaio hotelean bi gau igarotzearen ideia gustatu eta gertuko nekazal turismoko etxe batera joatea proposatu dio 
- Ihesaldirako data aukeratzeko garaian, Joneren semea noiz itzuliko den hartu behar dute kontuan 
- Jon izango da gaua non igaro erabakiko duena 
- Jone saiatuko da hurrengo bi egunetarako baimena eskatzen lantokian, baina segur aski ez du aukerarik izango. 
- Benetako ihesaldi erromantiko izateko, lentzeria fina eramateko eskatu dio Joneri. 

### 3- Entzun ondoren

#### 3.1 Ihesaldi erromantikoa proposatu

    Internetetik hartutako iragarki batetik abiatuta, ideia eta mezua aldatu eta "originalago bihurtu behar dute ihesaldi erromantikoa.

Eginkizuna:

- Binaka,  ariketan aipatu dituzten ezaugarriak partekatu
- Ideia horiek erabilia, adibideko iragarkiarekin alderatu eta originaltasuna eman behar diote. Nahi izanez gero, irudiak ere erabil ditzakete.
- Ondoren, proposamena ikaskideen aurrean azaldu.
- Azkenik, denen artean, aukeratu originalena, bereziena.



### NAGUSI HOTELA

## Gorbeia ihesaldi erromantikoa



[AZKEN EGUNA]

Hotel berezia Gasteizetik 15 kilometrotara eta Bilbotik 25 kilometrotara. Ezagutu ezazu Virgen del Oro-ko Santutegia, Jugatxiko ermita, Sarria edo Gorbeako parke naturala.

AFARIA + EGONALDIA + GOSARIA

- Gau bateko egonaldia bi pertsonentzako.
- Afari erromantikoa 2 pertsonentzako:
  - Olagarro tosta ali-oli kremarekin.
  - Ahate kaneloia sagar bexamelarekin.
  - Bakailoa tempuran safainarekin.
  - Gazta tarta eta frambuesa coulis-a.
  - Ura eta Ardoa aukeran Garcia de Olano zuria edo 2010 Laraz krianza.
- Hurrengo eguneko gosaria barne: laranja zuku naturala, zerealak, kafea, yogurra eta aukeran tostadak hestebeteekin edo kroissant mermelada eta gurinarekin.
- WiFi. Late Check Out posible izanez gero. Azken prezioa 2 lagunentzat.
- 2 pertsonentzako gau bat gehiago nahi izan ezker (gosaria barne) 45 euroko gehigarria ordaindu beharko da Hotelean.



### BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Besterik gabe

Jonek bulegoan gertatutakoa kontatu dio Joni. Osatu ezazu gertaera azaltzen duen zatia, beheko egiturak erabiliz

Erreparatu ohar zein adibideei, eta ondoren, osatu elkarrizketa behar den tokian egitura hauek erabiliz.

- ... **izeneko** : izena duen egituraren orde.

- *Adb. Iñaki izeneko mutil bat ezagutu dut*
- **oritu:** gogoratu aditzaren pareko erabilera. Hortaz, kontuan izan:
  - *Andrea oroitzen dut (zer/nor), baina, Andreaz oroitzen naiz (zertaz/nortaz)*
- **aditz laguntzailea +-(e)nerako:**
  - *Adb. iritsi nintzenerako bulegoan ez zegoen inor*
- **Kontua da... -(e)la:** azalpena emateko egitura
  - *Adb. Ez dut pitxarra nik puskatu. Kontua da nahi gabe eskuarekin jo dudala eta apaletik erori da*
- **Aditza+ -ako(a)/-dako(a):** lehen egin dugun zerbaiti erreferentzia egiteko.
  - *Adib. lehen idatzitakoa ez da zuzena*
- **Sekula:** ezezko eta galderazko testuinguruetan (“inoiz” egituraren parekoa)
  - *Ad. Izan zara sekula atzerrian? / Lanez gainezka egon arren, ez da sekula kexatzen*
- **Salatu** aditzak NOR-NORK eskatzen du, (eta ez nor-nori-nork):
  - *Adb. Zuzendariarengana joan da eta laguna salatu du*
- **Aditza +-(z)earren:** helburua adierazteko erabiltzen den egitura (-t(z)eagatik egituraren parekoa)
  - *Adb. filmari buruz zerbait esatearren (=esateagatik), irudi aldetik primeran dagoela esango nuke*

### Hutsuneak bete:

JONE: Ez duzu sinetsiko zer gertatu den bulegoan.

JONE: Ba oso fuertea izan da. Ez dakit komentatu nizun Xabier izeneko lankidearena...

JON: Xabier? Ez dut uste... edo ez dut oroitzen behintzat.

JONE: Ia,... uste dut iragarkia egitera etorri zinenerako jada bajaran zegoela. Beno, kontua da, Xabierrek baja hartu zuela bulegoan zegoen lan giroak antsietatea sortzen ziolako...

JON: Zurekin lan egiteak efektu hori izan dezake...Merkel...

JONE: Ez ez, nik ez dut zerikusirik kontu honetan... flipatuko duzu... kontua da Xabierrek harreman txarra zuela bere departamenduko lankide batzuekin... eta halako batean mobing-a egiten ziotela esaten hasi zen, eta beno, bada esandakoa, baja hartu zuela..

JON: Bueno ba ez da lehen kasua izango...

JONE: Ia,... kontua da pasadan astean, salaketa jarri ziola bere lankide bati mobinagatik... eta esango dizut nori...ez zenukeelako sekula asmatuko.... Zuriñeri... Zuriñe salatu du!

JON:Zuriñe?jajajajajaja

JONE:Bai nik ere barre egiten dut...negar ez egitearren... baina ez da hor amaitzen... orain, salaketak sortu dion antsietateagatik Zuriñek ere baja hartu du.

JON:Jajaja Grande (galanta)! Zuriñeren fan-fatala naiz!

### TRANSKRIPZIOA

W-JONE: Etorri nahi al duzu gaur etxera? Afaria + seriea

W-JON: Bale. Ze ordutan?

W-JONE: Goiz samar afaltzen badugu serie berri bat hasi eta bizpahiru kapitulu ikusteko aukera emango digu.

W-JON: Ze serie?

W- JONE: Berdin dio... gero aukeratzen dugu.

JONE:Pasa... Zer da hori?

JON:Cava botila bat...

JONE:Gabonetako soberakinak ekartzen dizkidazu?

JON:Bai, badakizu,...Mozkortu nahi zaitut...

JONE:Afaltzeko ez dakit oraindik zer egin... eguerdian egin ditudan lentejak (dilistak) ditut, edo bestela pizza bat sartu dezakegu labean...

JON:Niregatik pizza...

JONE:Ez duzu sinetsiko zer gertatu den bulegoan.

JON:Hozkailuan sartuko dut cava...bale?

JONE:Bai, bai, oraintxe konturatu naiz ez daukadala koparik... edalontzi normalak erabili beharko ditugu.

JON:Glamour gehiago zenuela uste nuen...

JONE:Nik glamourra badakizu zer egoeretarako uzten dudan...

JON:Grrrr

JONE:Ba oso fuertea izan da. Ez dakit komentatu nizun Xabier izeneko lankidearena...

JON:Xabier? Ez dut uste... edo ez dut oroitzen behintzat.

JONE:la,... uste dut iragarkia egitera etorri zinenerako jada bajaran zegoela. Beno kontua da, Xabierrek baja hartu zuela bulegoan zegoen lan giroak antsietatea sortzen ziolako...

JON:Zurekin lan egiteak efektu hori izan dezake...Merkel...

JONE:Ez ez, nik ez dut zerikusirik asunto (kontu) honetan... flipatuko duzu... kontua da Xabierrek harreman txarra zuela bere departamenduko lankide batzuekin... eta halako batean mobing-a egiten ziotela esaten hasi zen eta beno, bada esandakoa baja hartu zuela..

JON:Bueno ba ez da lehen kasua izango...

JONE:la,... kontua da pasadan asteen, salaketa jarri ziola bere lankide bati mobinagatik... eta esango dizut nori...ez zenukeelako sekula asmatuko.... Zuriñeri... Zuriñe salatu du!

JON:Zuriñe?jajajajajaja

JONE:Bai nik ere barre egiten dut...negar ez egitearren... baina ez da hor amaitzen... orain, salaketak sortu dion antsietateagatik Zuriñek ere baja hartu du.

JON:Jajaja Grande (galanta)! Zuriñeren fan-fatala naiz!

JON:Ze serie ikusiko dugu?

JONE:Orange is the new Black ongi dagoela esan didate

JON:Ez dut ikusi... Hori emakumeen kartzelan gertatzen den hori da ez? Nik Better Call Saul ikusi nahiko nuke...

JONE:Ze serie da hori?

JON:Breaking Bad-eko abokatuarekin egin duten spin-offa

JONE:Baina hori berria da ez?



JON: Bai duela aste gutxi hasi ziren.

JONE: Ba itxaron dezagun lehendabiziko sasoia amaitu arte eta horrela segidan ikusten ditugu.

JON: Bale... gainera, emakumeak, kartzela,... seguru titiak ikusiko ditugula...

JONE: Ez dut ezer entzun Jon... alperrik ari zara.. gaur ez duzu ni txintzatzea (zirikatzea) lortuko.

JON: Cava geratzen da?

JONE: Apur bat...

JON: Aizu Jone, duela ia urtebete opari kutxa horietako bat opari egin zidaten eta kadukatzeaz (iraungitzeaz) dago...

JONE: Eta?

JON: Ba pare bat hotel gau direla, eta nahi baduzu...

JONE: Uuuuhhhh hotel batetara eraman nahi nauzu... Ez dakit zergatik, baina opari kutxa hori... zuk atzo erosi zenuela iruditzen zait. Salido!

JON: Salido? Ikusi hemen data! Baina lasai, ez bazaizu ideia gustatzen beste norbaiti eskainiko diot asteburu erromantiko bat igarotzeko aukera. Zuriñeri adibidez, beharrean izango da eta.

JONE: Beno, badakizu asteburu honetan ezin duela izan, Niko etzidamu itzuliko da eta hilabete osoa pasako du nirekin...

JON: Aizu, eta zuk ..horrela.. bat-batean... jai egun pare hartzeko aukera ba al duzu?

JONE: Beno, igual ahalko nuke...

JON: Bale.. erabakita... bihar eta etzi joango gara. Orain falta zaizun gauza bakarra hotela aukeratzea da.

JONE: Ez ez ez.. hau zure ideia da eta zuk aukeratuko duzu. Nik mail bat idatziko diet lankideei datozen bi egunetan ez noala esateko.

JON: Baina orduan bagoaz?

JONE: Bai, .. baina mesedez ez ezazu oso urruti hartu... ez dut bi egunetatik bat kotxean pasa nahi.

JON: Nire kontu... GRRR... hasi zure maletan daukazu lentzeria finena sartzen...

JONE: Jajaja Nik ere gauza bera eskatuko nizuke... baina iruditzen zait alperrik litzatekeela..